

BATZAR OROKORRA/ASAMBLEA GENERAL 2018-04-17

Organoa edo batzordea: Batzar Orokorra.

Bilera-mota: ohikoa.

Eguna: 2018/04/17.

Ordua: Hasiera, 19:30.

Tokia: Legazpiko udaletxeko Batzar Aretoa.

Organo o comisión: Asamblea General.

Tipo de convocatoria: ordinaria.

Día: 17/04/2018.

Hora: Comienzo, 19:30.

Lugar: Salón de Plenos del Ayuntamiento de Legazpi.

Parte hartu duten Ezkio-Itsasoko zinegotziak:

José Ignacio Etxezarreta Estala.

José M^a Zumarraga Esnal.

María Luisa Pildain Cenitagoya.

Iñaki Mendiguren Bereziartu.

Concejales/as de Ezkio-Itxaso que asisten:

José Ignacio Etxezarreta Estala.

José M^a Zumarraga Esnal.

María Luisa Pildain Cenitagoya.

Iñaki Mendiguren Bereziartu.

Parte hartu duten Legazpiko zinegotziak:

Koldobike Olabide Huelga, Mankomunitateko lehendakaria.

Javier Iraeta Alvarez.

Eric Galvez Alvarez.

Ane Urkiola Alústiza.

Mikel Alzelai Zulaika.

Rakel Puente Irurtia.

Andoni Aizpeolea Alustiza.

Oscar Valbuena Pascual.

Roberto Alonso Yebra.

Concejales/as de Legazpi que asisten:

Koldobike Olabide Huelga, Presidenta de la Mancomunidad.

Javier Iraeta Alvarez.

Eric Galvez Alvarez.

Ane Urkiola Alústiza.

Mikel Alzelai Zulaika.

Rakel Puente Irurtia.

Andoni Aizpeolea Alustiza.

Oscar Valbuena Pascual.

Roberto Alonso Yebra.

Parte hartu duten Urretxuko zinegotziak:

Jon Luqui Albisua.

Itziar Agirre Berriotxoa (bigarren puntuan sartu da).

Igor Zubillaga Aguado.

Juan Luis Albisua Garmendia.

Maialen Fidalgo Mendizabal.

Oihane Zabaleta Mujika.

Iñaki Etxaniz Arregi.

Matilde Sanz García.

Aitor Otegi Epelde.

Concejales/as de Urretxu que asisten:

Jon Luqui Albisua.

Itziar Agirre Berriotxoa (se incorpora en el segundo punto).

Igor Zubillaga Aguado.

Juan Luis Albisua Garmendia.


Maialen Fidalgo Mendizabal.

Oihane Zabaleta Mujika.

Iñaki Etxaniz Arregi.

Matilde Sanz García.

Aitor Otegi Epelde.



BATZAR OROKORRA/ASAMBLEA GENERAL 2018-04-17

Natividad Nieves Medina.
Alberto La Rosa Viedma.

Natividad Nieves Medina.
Alberto La Rosa Viedma.

Parte hartu duten Zumarragako zinegotziak:

Mikel Serrano Aperribay (bigarren puntuan sartu da).
Rosa Maiza Garrido (bigarren puntuan sartu da).
Antonio Navarro Perez.
Aranzazu Gonzalez San Vicente.
Jose M^a Bermejo Vega.
Inmaculada Albisua Irureta.
Iñigo Peñagarikano Badiola.
Josu Idigoras Eguia.
Unai Orbegozo Uribesalgo.

Udal teknikariak:

Iñaki Gastañares Sanchez, idazkaria.
Fernando Arakama Fernandez, kontuhartzailea.
Mapi Iburgurtxi Otermin, administraria.

Idazkariak egiaztatu du saiorako behar beste quorum badagoela.

Aztergaiak, esan-eginak eta erabakiak:

1. Bidezkoa bada, 2017-07-04ko bileraren akta onartzea.

Iradokizunik eta argibiderik gabe aho batez onartu da aipatu akta.

2. 2018ko aurrekontu orokorraren onarpena.

Lehendakari andreak azaldu egin du 2018ko

Concejales/as de Zumárraga que asisten:

Mikel Serrano Aperribay (se incorpora en el segundo punto).
Rosa Maiza Garrido (se incorpora en el segundo punto).
Antonio Navarro Perez.
Aranzazu Gonzalez San Vicente.
José M^a Bermejo Vega.
Inmaculada Albisua Irureta.
Iñigo Peñagarikano Badiola.
Josu Idigoras Eguia.
Unai Orbegozo Uribesalgo.

Técnicos/as asistentes:

Iñaki Gastañares Sánchez, Secretario..
Fernando Arakama Fernández, Interventor.
Mapi Iburgurtxi Otermin, administrativa.

El Secretario comprueba la existencia de quorum suficiente para la celebración de la sesión.


Orden del día, intervenciones y acuerdos:

1. Aprobación, si procede, del acta de la sesión de 04-07-2017.

No habiendo sugerencias o aclaraciones al acta, se aprueba por unanimidad.

2. Aprobación del Presupuesto General para el ejercicio 2018.

La Sra. Presidenta procede a exponer el



BATZAR OROKORRA/ASAMBLEA GENERAL 2018-04-17

urterako aurrekontu kointsolidatua, hau da, Mankomunitatearena berarena zein UGGASArene. Aurrekontuak % 8,7ko jaitsiera du 2017koarekiko, ekintza batzuetarako finantziarioa noiz lortzen den baldintzatuta, eta UGGASArene jarduerak % 48 eta Mankomunitatearene % 52 eramango dute horretan.

Presupuesto consolidado, esto es, de la propia Mancomunidad y de UGGASA, para el año 2018 que es un 8,7% inferior al del año 2017, por temas de cuándo se obtiene determinada financiación para actividades y repartiéndose en un 48% a las actividades de UGGASA y en un 52% a la propia Mancomunidad.

AURREKONTU KONTOLIDATUA

SARREREN EGOERA ORRIA

Kap.	Izena	Euro
I	Zerga zuzenak	0,00
II	Zeharkako zergak	0,00
III	Tasak eta beste sarrera batzuk	157.512,00
IV	Transf. korronteak	1.623.721,78
V	Ondare sarrerak	12,00
VI	Besterentzeak	0,00
VII	Kapital transferentziak	47.156,74
VIII	Aktibo finantzarioak	0,00
IX	Pasibo finantzarioak	0,00

GUZTIRA 1.828.602,52 €

GASTUEN EGOERA ORRIA

Kap.	Izena	Euro
I	Langile gastuak	565.273,00
II	Ondasun arrunt. eta zerb.	938.521,52
III	Gastu finantzarioak	0,00
IV	Transferentzia korronteak	314.808,00
VI	Inbertsio errealak	10.000,00
VII	Kapital transf.	0,00
IX	Pasibo finantzarioak	0,00

GUZTIRA 1.828.602,52 €

PRESUPUESTO CONSOLIDADO

ESTADO DE INGRESOS


Cap.	Denominación	Euros
I	Impuestos directos	0,00
II	Impuestos indirectos	0,00
III	Tasas y otros ingresos	157.712,00
IV	Transf.corrientes	1.623.721,78
V	Ingresos Patrimoniales	12,00
VI	Enajenaciones	0,00
VII	Transferencias capital	47.156,74
VIII	Activos financieros	0,00
IX	Pasivos financieros	0,00

TOTAL 1.828.602,52 €

ESTADO DE GASTOS

Cap.	Denominación	Euros
I	Gastos de Personal	565.273,00
II	Bienes corr. y servicios	938.521,52
III	Gastos Financieros	0,00
IV	Transferencias Corrientes	314.808,00
VI	Inversiones Reales	10.000,00
VII	Transf.capital	0,00
IX	Pasivos financieros	0,00

TOTAL 1.828.602,52 €



BATZAR OROKORRA/ASAMBLEA GENERAL 2018-04-17

Adierazi du bete egiten direla egonkortasun – defizita–, iraunkortasun –zorra– eta likidezia – hornitzaileei ordainketak– adierazleak.

Sarrerei dagokienez, adierazi du udal ekarpenak % 5,3 jaitsi direla 2017koetik, hain zuzen beste erakunde batzuetatik transferentziak % 23,8 jaitsi izanaren eraginez. Ondoren aditzera eman ditu ekarpenen kopuru garbiak, esanez espero duela une honetan berresteke dauden ekarpenetako batzuk berretsi ahala aurrekontuan jasotzea horiek ere. Horrela jarduteko arrazoa zuhurtziazko irizpide batez jokotzea izan da.

Aurrekontu finkatua murriztearen arrazoa UGGASaren sarreretan gertatu den murrizketan dago.

Gastu programei dagokienez, aurrekontu honetan ahalegin nagusia, lehenik, enplegua bideratzen da, hurrena enpresa-garapena dator, ondoren gizarte zerbitzuak, berdintasun programak, turismoa, ingurumena, hezkuntza, administrazio orokorra, kontsumoa, euskara, eta Zumarragan dagoen errausketa-labea konpontzeko gastuei aurre egiteko programa berri bat, eta azkenik gobernu organoak berak.

Ondoren alderatu egin ditu 2017ko eta 2018ko gastu programa horiek.

Aurrekontuak bete egiten ditu aurrekontuaren egonkortasun adierazleak eta finantza iraunkortasunaren adierazleak, gastu erregelarekin batera. Hornitzaileei ordainketak egiteko epeak ere betetzen dira.

Señala que se cumplen los indicadores de estabilidad – déficit-, sostenibilidad -deuda-, y liquidez – pago a proveedores-.


En cuanto a los ingresos indica que las aportaciones municipales aumentan -5,3%- con respecto a las de 2017, motivado por la bajada de las transferencias de otras instituciones -23,8%. A continuación indica las cifras netas de aportaciones, esperando que a medida que se confirmen algunas que ahora mismo no lo están se incorporen al presupuesto. Así se ha hecho por un criterio de prudencia.

El motivo de la reducción del presupuesto consolidado se encuentra en la reducción de los ingresos en UGGASA.

Por programas de gasto, en este presupuesto el esfuerzo importante se lo lleva, en primer lugar el empleo, luego el desarrollo empresarial, luego servicios sociales, los programas de Igualdad, turismo, medio ambiente, educación, administración general, consumo, euskera y un programa nuevo para hacer frente a los gastos de reparación del horno crematorio que está en Zumárraga, y por último los órganos de gobierno.

A continuación expone una comparativa entre estos programas de gasto en el 2017 y en el 2018.

El presupuesto cumple con los indicadores de estabilidad presupuestaria, sostenibilidad financiera y regla de gasto. También se cumple con el plazo de pago a proveedores.



BATZAR OROKORRA/ASAMBLEA GENERAL 2018-04-17

Ondoren lehendakari andreak azaldu egin ditu UGGASAk 2018rako finkatu dituen 12 helburu operatiboak; horietan, lehiakortasun estrategiaren alderdia azpimarratzen da.

Aldi berean, aipatu egin ditu mankomunitaterako finkatu diren lehentasunak, lau multzotan bilduak: enpresa-garapena, euskara, enpleguaren sustapena eta berdintasuna.

2018ko erronka garrantzitsuenen artean, lehiakortasun strategiako ildoak azpimarratu ditu, Emakumearen Etxearekin berdintasunari emango zaion bultzadarekin, gizarte zerbitzuen zorroaren inplementazioarekin, abiadura handiko trenarekin (Ezkioko alternatiba) eta gobernantza ereduarekin batera.

Hitz egiteko txanda hasirik, lehen-lehenik Oihane Zabaletak hartu du hitza, ez etorria desenkusatu duen Antzine Biain ordezkatu baitu. Adierazi du EH Bilduren balorazioa egin behar duela aurrekontu hauei buruz. Azaldu du ezen, ia-ia azken urte eta erdian zehar, lehiakortasun strategiaren gainean egin dela lan, eta gustatuko litzaiekeela aurrekontu hauek plan hori inplementatzea, hau da, hitzetatik ekintzetara igarotzea.

Krisiak eta, batez ere, Arcelor itxi izanak eskualdeko herrien artean baterako estrategia inplementatzea eskatzen zuten, hain zuzen egoerari aurre egiteko eta autokonplazentzian ez erortzeko ezen, langabezia tasaren murrizketa izan den arren, oso enplegu prekario eta kalitate baxukoa sortu da. Egoerak lau herrien arteko koordinazioa eta inplikazioa eskatzen du.

Aipatu du Lehiakortasun Estrategia aurrekontuetatik harago doala, legegintzaldiari urtebete inguru geratzen zaiolako eta, horregatik,

A continuación la Sra. Presidenta expone los 12 objetivos operativos que se ha marcado UGGASA para 2018, recalcando el aspecto de la estrategia de competitividad.


A su vez comenta las prioridades que se han marcado para la Mancomunidad, agrupadas en cuatro: desarrollo empresarial, euskera, fomento de empleo e igualdad.

Como retos más significativos para 2018 destaca las líneas de la estrategia de competitividad, impulso a la igualdad con la Casa de las Mujeres, implementar la cartera de servicios sociales, tren de alta velocidad (alternativa de Ezkio) y modelo de gobernanza.

En el turno de intervenciones toma la palabra, en primer lugar, Oihane Zabaleta, en sustitución de Antzine Biain que ha excusado la asistencia. Indica que va a hacer la valoración de EH Bildu sobre estos presupuestos. Señala que durante el último año y medio prácticamente se ha estado trabajando sobre la estrategia de competitividad, y les gustaría que estos presupuestos implementasen ese Plan, que se pase de las palabras a los hechos.

La crisis y sobre todo el cierre de Arcelor exigía la implementación de una estrategia conjunta de los pueblos de la comarca para hacer frente a la situación y no caer en la autocomplacencia ante la reducción de la tasa de desempleo pero dando lugar a un empleo muy precario y de baja calidad. La situación exige una coordinación e implicación de los cuatro pueblos.

Comenta que esta Estrategia de Competitividad va más allá de los Presupuestos, pues



BATZAR OROKORRA/ASAMBLEA GENERAL 2018-04-17

oso garrantzitsua delako aurrekontuak baino gehiago eskualderako estrategia hori kontsentsuz onartzea.

Eta, aurrekontuari buruzko eztabaidaz gain, jarraitu egin behar dela eragile sozial eta ekonomikoekin estrategia sakontzen.

Kezka agertu du, halaber, inplementazioak egitura sendo eta jarraitutasunezkoa eskatzen duelako eta Diputazioaren aldetik egitura hori mantentzeko laguntzak murrizteko joera ikusten ari direlako. Ildo horretatik uste du UGGASA indartu egin behar dela, hain zuzen ere bi pertsona kontratatuta berdintasun arloa sendotu den bezalaxe; izan ere, oso positibotzat jotzen dute hori.

Eta beste gauza batzuetan kontsentsua egon bada ere, AHTren proiekturako alegazioetan ez da horrelakorik izan. Dagoeneko hamar urte daramatzen eztabaida da, eta bizirik segitzen du oraindik ere, ikuspegi desberdinez, besteak beste informazio falta dugulako, ez dakigu-eta zer izango den Ezkion.

Ondoren Mikel Serranok hitza hartu du. Esan du gutxi hitz egingo duela, esan den bezala astia izango da-eta lehiakortasun estrategiari buruz eztabaidatzeko. Aipatu du aurten, aurrekontuez gain, talde politikoek askotan eskatu zerbaiti buruz ari garela eztabaidatzen, zehazki eskualdearen posizionamenduari eta Arcelor itxi ondoren beste administrazio batzuei egin errekerimenduari buruz. Eta iragarri du Alderdi Sozialistak onespén kritikoa emango diela aurrekontuei.

Ez du ñabarduretan sartu nahi, baina garbi utzi

prácticamente queda un año de legislatura, y por eso tiene una gran importancia que más que los Presupuestos se apruebe por consenso esa estrategia para la comarca.


Y además que más allá del debate presupuestario, hay que seguir profundizando la estrategia con los agentes sociales y económicos.

Manifiesta su preocupación por el hecho de que la implementación requiere de un estructura firme y continuada, y están apreciando una tendencia de, por parte de la Diputación, ir reduciendo las ayudas para el mantenimiento de esa estructura. En ese sentido considera que UGGASA debe ser fortalecida, así como se ha fortalecido el área de igualdad con la contratación de dos personas, lo que ven muy positivo.

Así como en otras cosas sí, en el tema de las alegaciones al proyecto del TAV no ha habido un consenso. Es este un debate que, tras diez años, continúa, con visiones diferentes, entre otras cosas porque se sigue teniendo falta de información puesto que todavía no se sabe qué va a pasar por Ezkio.

A continuación toma la palabra Mikel Serrano para comentar que será breve, pues todavía habrá tiempo de debatir, como se ha dicho, sobre la estrategia de competitividad. Comenta que este año además de los presupuestos debatimos sobre algo muy demandado por los grupos políticos como es el posicionamiento de la comarca y el requerimiento a otras Administraciones tras el cierre de Arcelor. Anuncia una aprobación crítica del Partido Socialista a los presupuestos.

No desea entrar en matices pero sí dejar clara



BATZAR OROKORRA/ASAMBLEA GENERAL 2018-04-17

nahi du 2017an zehar sortu diren zenbait konturen inguruan bere taldeak duen jarrera.

Kontatu du nola egin zuten bat zenbait erakundek, Eusko Jaurlaritzara bera buru, Arcelor itxi behar zutelara eta. Horrek aukera eman zuen mahai batean eseri eta Plan Industrialaren aurretiko lehiakortasun estrategiari buruz hitz egiten hasteko –plan industrialaren ere orduan aktibatu zen-; eta eskualdearen aipamen zehatza eraman zen, gainera, Euskadiko gobernu akordiora.

Orduan modu kolektiboan hasi ginen plan estrategiko bat lantzen, eta horretatik etorri da aipatu den lehiakortasun estrategia; dena den, neurri batean kritikatu egin du formen desegokitasuna, uste baitu estrategia, agian, aurrekontuen aurretik onartu behar zela.

Aipatu egin ditu Alderdi Sozialistak helburu operatiboak egin zizkien ekarpenak, lehendakari andreak ez baititu aipatu; ekarpen horietan hiru helburu jasotzen ziren: industri lurzorua berreskuratzea, gure lurren potentzialtasunak aztertzea eta kalifikazio profesionala hobetzea, horretan garrantzi berezia emanez emakumeei.

AHTren inguruan izan den eztabaida aipatu du. Uste du ezen, aukera legitimoak badiren arren, eskualderako potentzialtasun gisa ikusi behar dela, beste azpiegitura batzuk izan diren bezalaxe. Amaitzeko, EDEN saria eta Eusko Jaurlaritzak proiektuan egin duen apustua aipatu ditu, gobernantza ereduaren inguruan dauden halako desadostasun batzuekin batera, oinarri sendoak eman behar baitzaizkio ondoren gizartera zabaldu ahal izan dadin.

Azkenik, Unai Orbegozok kezka adierazi du

la postura de su grupo ante ciertas cuestiones que se han suscitado durante el 2017.


Relata cómo se aunaron filas entre las diferentes instituciones, lideradas por el Gobierno Vasco, ante el reto del cierre de Arcelor. Aquello dio opción para sentarse en una mesa y empezar a hablar de lo que hemos llamado estrategia de competitividad previo al Plan Industrial que se activó entonces también, llevándose incluso la mención explícita de la comarca al acuerdo de gobierno en Euskadi.

Entonces se empezó a trabajar de forma colectiva en un Plan Estratégico que ha dado lugar a la estrategia de competitividad de la que se ha hablado, aunque critica un poco la idoneidad de las formas pues entiende que quizá la estrategia debiera haberse aprobado antes que los presupuestos.

Comenta las aportaciones que el partido socialista hizo a los objetivos operativos, que la Sra. Presidenta no ha mencionado, que consistieron en la introducción de tres objetivos: recuperación de suelo industrial, estudio de las potencialidades de nuestros terrenos y mejora de la cualificación profesional con especial relevancia hacia las mujeres.

Comenta el debate habido en torno al TAV, considerando que al margen de opciones legítimas, entiende que hay que verlo como una potencialidad para la comarca como lo han sido otras infraestructuras. Finaliza mencionando el premio EDEN y la apuesta del Gobierno Vasco en el proyecto, y ciertas discrepancias que existen en cuanto al modelo de gobernanza, que debe dotarse de unas bases robustas para luego abrirse a la sociedad.

Por último Unai Orbegoza comenta, en primer



BATZAR OROKORRA/ASAMBLEA GENERAL 2018-04-17

UGGASako sarreren jaitsiera dela eta; dioenez, horri buelta emateko ahalegina egin beharko da. Esan du Arcelor ixteak ahaleginak batzea eta eskualdea suspertzeko lanean elkarrekin aritzea ekarri zuela. Poztu egin da berdintasun arloan bi teknikari lanaldi osoz kontratatzean egin den ahaleginarekin, eta bere taldeak AHTren kontuan hartu duen jarrera azaldu du –H alternatibaren kontra agertu dira–, mankomunitatearen alegazioekin bat ez egiteko arrazoiekin batera.

Lehendakari andreak argitu du bidali dela Alderdi Sozialistak UGGASaren Kontseiluan egin zituen ekarpenak jasotzen dituen proposamen aldatua.

Hitz egiteko txanda honen ondotik, Mankomunitatearen 2018ko urteko Aurrekontu Kentsolidatua botaziora eraman, eta honako emaitza izan da:

- **ALDEKO BOTOAK:**Aho batezkoak.

- **KONTRAKO BOTOAK:**

- **ABSTENTZIOAK:**

Aurrekontua onartuta geratu da.

3. 2018. urterako plantilla eta lanpostuen zerrenda onartu.

Lehendakari andreak Mankomunitatearen plantilla azaldu du:

lugar, su preocupación por el descenso de ingresos en UGGASA, que habrá que tratar de solventar. Indica que el cierre de Arcelor supuso que se aunaran esfuerzos y se trabajara conjuntamente en la reactivación de la comarca. Se congratula por el esfuerzo que se ha hecho en materia de igualdad con la contratación de dos técnicas a jornada completa y explica la postura de su grupo ante el TAV – posicionándose en contra de la alternativa H-, y las razones de no haber apoyado las alegaciones de la Mancomunidad.

La Sra. Presidenta aclara que se ha enviado la propuesta modificada con las aportaciones que hizo el Partido Socialista en el Consejo de UGGASA.

Tras las intervenciones se somete a votación el Presupuesto consolidado de la Mancomunidad para 2018 que obtiene el siguiente resultado:

- **FAVOR:** Unanimidad.


- **CONTRA:**

- **ABSTENCION:**

El Presupuesto queda aprobado.

3. Aprobación, de la Plantilla y Relación de Puestos de Trabajo para 2018.

Expone la Sra. Presidenta la Plantilla de la Mancomunidad:



**BATZAR OROKORRA/ASAMBLEA GENERAL
2018-04-17**

2018ko PLANTILLA ORGANIKOA

Lanpostu kopurua / N° puestos	Izena/Denominación	Kategoria / Categoría	Taldea/Grupo	Egoera /Situación	Oharrak/Observaciones
LAN KONTRATUDUN LANGILEEI GORDETAKO LANPOSTUAK/ PUESTOS RESERVADOS A PERSONAL LABORAL					
1	Kontsumoko teknikaria / Técnica de consumo	2	A2	F	
1	Administraria / Administrativa	5	C1	F	

Azaldutako iritzien ondotik, proposamena botaziora eraman eta emaitza hau izan da:

- **ALDEKO BOTOAK:**Aho batezkoak.
- **KONTRAKO BOTOAK:**
- **ABSTENTZIOAK:**

4. Eskariak eta galderak.

Ez da horrelakorik izan.

Eta aztertzeke beste gairik ez dagoenez, lehendakari andreak amaitutzat eman du bilera, arratsaldeko bederatziak direnean. Eta nik, idazkaria naizen aldetik, aztertu dena eta hartutako erabakiak erasota uzteko akta hau egin eta bertan jasotako guztiaren fede ematen dut.

Akta hau 2018ko ekainaren 4an egindako bileran onartu zen:

- bere osotasunean, inolako aldaketarik gabe.
- baina egun honetako bileraren aktan jasotzen dira egin ziren aldaketak.

Tras las intervenciones se somete a votación la propuesta que obtiene el siguiente resultado:

- **FAVOR:** Unanimidad.
- **CONTRA:**
- **ABSTENCION:**

4. Ruegos y preguntas.

No se producen.

No habiendo más asuntos que tratar, la Sra. Presidenta, levanta la sesión, siendo las 21:00 horas, y para constancia de lo que se ha tratado y de los acuerdos adoptados, extendiendo la presente acta de todo lo cual, yo, el secretario, doy fe.

Este acta fue aprobada en la sesión del día 4 de junio de 2018:

- en su integridad, sin ninguna objeción.
- si bien en el acta de la sesión de dicho día se recogen las objeciones registradas.